Zubi zahar baten eskerrona



2013an 200 urte bete ziren Espainiako Independentziaren Gerraren baitan San Migel zubiko gudaldia gertatu zela Beran. Frantziako tropak ihesi zihoazela, tropa aliatuekin borroka aldia izan zuten Beran, eta San Migel zubia defenditzeko borroka aldiak kalte izugarriak utzi zituen Bortzirietako herritarrengan, ez hainbertze zuzenean borrokan hildakoak, baina bai ondorengo urteetan jasandako gosete eta izurriteen ondorioz.

Herritarrek sufritutakoa gogora ekartzeko, hainbertze ekitaldi antolatu zen Beran 2013an zehar. Eta irailaren 1ean, San Migel zubian, ekitaldi berezia antolatu zen. Bertan irakurritako testua bildu dugu orriotan.

Itxurako paratu nauzue gaurko. Dotore. Elegante, aspaldian ez bezala. Herriko hainbertze emakume eta gizon aritu zarete azken urteotan musutruk lanean, ni apaintzen, moldatzen, garbitzen, eta orain 200 urte hemen gertatutakoa oroitarazten. Gaur, nik, zubi zahar honek, eskerrak eman nahi dizkizuet borondatezko lan horretan aritu zareten guzioi, eta gaur honat hurbildu zareten agintari, ordezkari eta herritar deneri. Mila esker besta hau antolatzeagatik, eta bertara hurbiltzeagatik.

Baina ni ez nago bestetara ohituratua, ez hainbertze jende elkarrekin biltzera ere. Toki xumeagoa izan da hau betidanik. Herritarren joan-etorri ixilen protagonista izan naiz ni beti. Banaka, binaka, eta tartean-tartean familia giroan edo lagun artean pasatzen ziren koadrila ttikiak baino ez ditut hartu. Alkaiagatarrek Berarako joan-etorrietan erabili izan nauzue gehien, mandautuetara, eskolara, mezatara garai batean, eta bestara. Azken boladan, aldiz, turista franko eta beratar aunitzez gehiago ibiltzen da hemen, paseatzen, kirola egiten. Arrontean desagertu dira, aldiz, garai bateko arrantzaleak eta igeri egitera etortzen ziren neska-mutiko koxkorrak, zubi gain honetatik jauzi eta Bidasoan freskatzen zirenak. Piszinak eraman zituen horiek.

Erran dut ez naizela bestatara usatua. Toki lasaia, ixila izan da hau, gehienetan. Besten ondotik neska-mutil gazte bakan batzuk etorri izan dira, goxotasun eta isiltasun bila, iluntasunera, lehenbiziko muxuak partitzera. Horixe izan baitut funtzio nagusia, uraren bi aldeetakoak lotzea, goxatzea, senidetzea. Horixe egiten baitugu zubiek, batu, hurbildu, bidea erraxtu.

Eta gaur, besta ekarri duzue nire ondora. Nire eguneroko isiltasuna hautsi duzue, baina eskertuta nago. Orain 200 urte hemen gertatu ziren katramilek, gudek, eta borrokek herritarrengan izan zituzten ondorioak gogora ekarri nahi izan dituzue. Ordukoak latzak izan ziren. Baina okerragoak izan ziren hurrengo hilabeteetan Berako eta Bortzirietako herritarrek sufritutako gosea, gaitzak eta izurriteak. Gorriak pasa zituzten denbora luzean. Aunitz hil ziren bidean. >>>

Ingeles eta frantsesak aritu ziren borrokan hemen. Napoleon eta Wellington, nor baino nor, bertako herritarren egoera bortz inporta zitzaiela. Kolera haundia hartu nuen nik orduan. Herritarrek euren eskuekin altxatutako zubia, bidea errazteko egina, euren borroken toki bihurtu zuten. Hondamendia eta suntsitzea izan ziren. Oinazea, sufrimendua eta gorrotoa zabaldu zuten, deus ere inporta izan gabe nor bizi zen zubiaren bi aldeetan, zein egoeratan utziko zituzten bertako herritarrak.

Eta horregatik, gaur, kontent naiz ni. 200 urte geroago, besta egitera etorri zaretelako zubiaren bi aldeetako herritarrak. Ez borroka haiek berpiztera, ez samin hura berriz ere errepikatzera. Ez. Zubi honek beti izan duen helburua oroitaraztera baizik: Bidasoan bi aldeetan bizi izan diren gizon-emakumeen senidetzea, zubi-lana bultzatzera etorri zarete. Harriz harri eraiki duzuen laguntasuna, zubiak eraikitzen diren bezala.

Kontent naiz orduko tiro eta bonba-hotsek baino, musika eta dantza izanen direlako hemengo protagonistak. Eta gaur, hemen, Bortzirietako herritarrek konpromiso hori ere berretsi duzuelako, musika eta dantza izanen direla, hemendik aitzinera ere, betirako, zubi zahar honen hots bakarrak, jendearen joan-etorri lasaiak, solas ttikiak hautsiko dituen soinu-banda. Bakean, lasaitasunean. Mila esker.

San Migel zubiko lagunak

PRODUCTOS ARTESANOS
ERROTAZAR®

ERROTAZAR HARATEGIA
Eztegara, 3 | BERA
Tel.: **948 63 00 88**
Fax: **948 63 10 57**
errotazar@telefonica.net
www.errotazarartesanos.com

Os deseamos felices fiestas
Besta zoriontsuak opa dizkizuegu

estaciones de servicios
urbicain s.l.
ONGI PASA BESTAK!
-6 zentimo € litroko
10 pezeta
ERREGAI ONENAZ gain, orain



Petronor
Bidasoa, 99
31780 BERA
T.948630209

REPSOL
Iruñea-Behobia errep. 74km
31780 BERA
T.948631370

Deskontu ZUZENA
Berako gure
REPSOL eta
PETRONOR
gasolindegietan